

ZORTZIGARREN GAIA: KONSTITUZIOA ZUZENBIDEAREN ITURBURU GISA

Jakina denez konstituzioa ordenamendu juridiko gorena da. Ordenamendu horren printzipioaren bueltan hierarkia printzipioa egonda.

Konstituzioaren nagusitasun politikotik bi ondorio ateratzen dira: konstituzioa eraberritzeko prozedura bereziak ezartzen direla (horrek esan nahi du konstituzioaren arauak arau zurrunik direla, hau da, eraberritua edo zuzendua izateko prozedura berezi bat eskatzen dituela; bi motakoak: prozedurari dagozkion berezitasunak edo gehiengo bat eskatzean; Espainiar Konstituzioa eraberritzeko prozedura korapilatsuak eskatzeaz gain gehiengo politikoak ere eskatzen dira). Konstituzioaren nagusitasuna bermatzeko konstituzioa zurrunkan behar dela esaten ohi da; diren salbuespen bakarrak dira kodifikatuta ez dauden konstituzioak (Erresuma Batua eta Zelanda Berria); beste konstituzio guztiak zurrunik dira pentsatu delako zurruntasun hori bide egokiena dela konstituzioaren nagusitasuna bermatzeko. Bigarren ondorioa da gainerako arauen konstituzio kontrakotasun bat ezartzea; ez dago benetako berme juridikorik hori bideratzeko kontrol bide egokiak ezartzen ez diren neurrian horretarako kontrol bide egokiak ezartzen ez diren bitartean ikusiko dugu hori egia dela konstituzioek jasan duten bilakaera historikoaren ondorioz; konstituzioek bakarrik lortu dute nagusitasun juridikoa konstituzio kontrakotasuna ezarri zirenetik aurrera, kontrol bide horiek ez zeudenean ezin zen honen gorentasuna konfirmatu; kontrol mekanismo hori gabe soilik hitzak izango dira konstituzioaren nagusitasunaren inguruan esaten dena.

8.1. KONSTITUZIOAREN ESANGURA: MUIN POLITIKOA DUEN LEGEA

- Konstituzioa, edukiaren araberako esangura

→ Estatuak, antolamendu politiko gisa, duen futsezko edo oinarrizko legea: Herri aginteen antolamendua eta jarduera arautzen duen oinarrizko araubidea

- Konstituzioa, funtsezko araubide gisa, erkidego politikoa eratzen duen jatorrizko araubidea da (J. J. Rousseau, *Le Contract social –Gizarte Hitzarmena-*)

→ Konstituzioa, edukiari dagokionez, Estatu guztiek duten araubidea izango da.

Konstituzioaren kontzeptua zuzen loturik dago iraultza liberalarekin.

- “Konstituzioa” hitzaren esangura politikoa

→ Frantziako Iraultza: Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena (1789), 16. Artikulua: *“Eskubideen bermea egiaztaturik eta aginteen banaketa ezarririk ez duen ezein gizartek ez du Konstituziorik”*.

→ Aginteen banaketa eta eskubideen bermea

. Konstituzioa Zuzenbidezko Estatuko arau nagusi gisa

→ Estatu-agintearen erabilera zilegizkoaren mugak ezartzen dituen araubidea

→ Konstituzioak eratzen du Estatua, ez alderantziz

Azkenean barreiatu den ideologia da konstituzioari indar juridikoa eman behar zaiola. Ez dago benetako berme juridikorik horretarako kontrol bide egokiak ezartzen ez badira.

Europar garai batean ematen ziren baldintzengatik ez ziren legegilearen boterea kontrolatzeko mekanismorik sortu beraz konstituzioa lege nagusia zela aldarrikatzen zen baina ez zeudelako kontrol mekanismoak oso zaila zen hau bideratzea XVIII, XIX eta XX mendeetan.

Bi motako arriskuak ditugu aurrean: Zer gertatzen da konstituzioaren nagusitasun juridikoa bermatzeko kontrol bide egokiak sortzen ez badira? Legegilearen legeak ezingo dira eztabaidatu jakiteko konstituzioarekin bat datozen edo ez; zein arrisku zegoen horren aurrean? (Tocqueville esaten zuen), arriskua da legegilearen tirania nola honek ez duelako kontrolik eta beraz botereen banaketa haustu egingo zen nola botere guztiak legegilean kontzentratuko ziren; Europar gertatu zen bereziki botereen banaketari buruz legegileak konstituzioak aldarrikatutako eskubideak betetzen ez zituela eta eskubide horien kontra zihoazen legeak eratzen zituela. Legegileak kontrolik ez badu soilik bera izango da legeak interpretatu izango duena. Bide horretatik hustu ziren konstituzioak aldarrikatzen zuena (legegilearen erruagatik); noren eskuetan utz dezakegu legegilearekin egiten duen kontrola? Epaileen eskuetan.

8.2. KONSTITUZIOA LEGE-ARAU NAGUSI GISA

- Konstituzioa Europako eredu iraultzailean

- Konstituzioa lotura politiko gisa
- Erregearen kontrako borroka eta aginteen banaketa
- Parlamentuaren nagusitasuna, nazio-borondatearen adierazle gisa.
→ legearen nagusitasuna
- Legegileak urtu egiten du Konstituzioaren edukia eta muina
- Parlamentuaren nagusitasunak galarazten du aginte konstituziogile (edo eratzaille) eta aginte eratuen artean bereizi ahal izatea
→ aginteak oro dira zilegitasun berberaren adierazle eta ondorio.

- Konstituzioa Ameriketako Estatu Batuetako tradizioan

Ipar Amerikako berezitasunak

- Gizarte sortu berria, aristokrazia zaharrik eta Erregerik gabekoa: Errepublika demokratikoa
- Aginteen banaketaren xedea: aginteen arteko oreka (*checks and balances* –galgak eta orekak-).
- *Common law* tradizioaren aztarnak eta epaileen betekizun oinarritzkoa

Zertan oinarritzen da epaileen boterea?

- Epaileen eginkizunak dituen mugak (legeari behar dion lotura, liskar bati lotuta, interesatuak eskatzen dionean)
- Legegilearen botereari mugak ezartzearen beharra, haren tirania saihesteko

- **John Marshall:** “Zer erakundeari eskatuko zenioke babesak Konstituzioaren urraketa edo haustura baten aurrean, ez badiezu epaileei ematen halako botererik? Ez dago bestelako erakunderik halako babesak eman dezakeenik”.

Auzitegi gorenaren presidente Marbury vs Madison epaia idatzi zuen.

- **Thomas Jefferson:** “Auzitegien tirania” zen hautabide bakarra; bestela onartu beharko genuke Estatuak (edo legegileak) izan beharko zutela Konstituzioaren interpretatzaileak norberak egindakoak.

Amerikako estatu batuetako presidentea Marbury vs Madison epaia eman zenean (horren kontra zegoen, Europar legegileari buruz pentsatzen zen bezala pentsatzen zuen). Epaia kontra jardun zuen eta John Marshall kargutik kentzeari buruz deliberatzen egon zen.

- **Alexis de Tocqueville:** Konstituzioaren kontra doazen legeak ez aplikatzeko boterea, epaileek munduan duten botererik handiena da, “biltzar politikoen tiraniaren kontra inoiz ezarri diren zedarririk handienetakoa da”. Legegilearen tiraniaman ez erortzeko ez dago bide eraginkorragorik.

Sistema demokratiko batean botereen banaketa kontuan hartuz legegileak egiten duena soilik epaileek kontrola dezakete; arriskuak izan dezake epaileen gobernua bihurtu daitekeelako. Epaileek ez dute oinarri demokratikorik epaile izateko. Epaileek duten boterea hain handia izan arren gogoratu beharra dugu epaileek duten mugak beren botereetan, epaileek ezin dute printzipio orokorrak, soilik liskar batzuetan erabakiak hartu.

Historiak demostratu du estatu batuetan hartutako erabakia hobeagoa izan zela nola Europako estatuetan hainbat eta hainbat aldiz sistemarekin ematen zen haustura.

- “Batasuna”-ren egituraketa Estatu federal gisa

→ Konstituzioak zehazten du eskumen banaketa, eta hori bermatu behar duena.

- Konstituzioa lege-arau goren gisa (*The supreme law of the land*)
- Konstituzioaren zurruntasuna → Konstituzioaren aldakuntzak gehiengo bereziak eskatzen ditu, hiritarra eta Estatuena.
- Konstituzioaren nagusitasuna eta konstituziotasun kontrola (*judicial review of legislation*) → *Marbury v. Madison* epaia (1803)

Gore Vidal-ek (*Nazio baten eraikuntza*): Marbury vs Madison horrela definitu zuen: Marshalek burututako “maltzurutasunaren ordurarteko maisulan susmaezina” (“Marshall’s thus far unsuspected masterpiece of guile”). Honetan kontatzen du nola eratu zen estatu batuetako estatutua.

Kelsenek proposatutakoaren bidez ere Europan XX.mendearen erdialdera saiatu ziren horrelako sistema bat etxeraten konstituzio kontrakotasuna ezartzen; Europan emandako porrot politikoa eta estatu batuetan emandako kontrol politikoaren arrakastarengatik. Kelsenek esan zuen Europan emandako porrot politikoa zian zela legegilearen kontrol ezarengatik. Hautatu zuten esaten askoz galera txikiagoak zekarrela sistemari kontrola epaileak eginda kontrol eza egin ordez; nola legegilearen tirania askoz gatzagoa delako.

Estatu batuetan gauzak ez ziren hain baketsu (askoz liskartsuagoak izan ziren); egia da estatu batuetan oinarri bat zegoela posible egin zuela Marbourny vs Madisson (oinarri hori federalisten paperak irakurtzen baditugu hor Hamiltonen argi planteatzen du epaileek hori egin zezaketela baina ideia hori ez zegoen oso zabaldua ezta onartuta baina guztiok aldarrikatzen zuten konstituzioa lurraren arau gorena zela). Konstituzioan ezarritako itun federalak berme juridikoak izateko printzipioa soilik onartu zezaketen konstituzioak berme juridikoak bazituen. 10 urte baino apur bat gehiago eman ziren Marbourny vs Madisson eman arte.

Oso egoera labaingarria zen nola botere bat emango zitzaizen epaileei zeintzuk ez dute balidotasun demokratikorik, botere demokratiko gorenarek batek (legegilea) gauzak ondo egiten zituen edo ez esateko eta txarto egiten bazituen (hain ustetan) atzera botatzea.

- Konstituzioa arau goren gisa itxuratzen duen tradizioaren harrera Europan

- Konstituzioaren inguruko Europako tradizioaren ondorio galgarriak:
 - XIX. mendean eskubideek pairatzen duten suntsiketa.
 - XX. mendearen hasieran Europan pairatzen diren krisiak eta askatasunen urradura, bi gerrate handietan gauzatzen direnak. Sistema demokratikoaren porrota bi bidetik etorri zen legegilea eta iraultzaileak botere demokratikoa garaitzean.

Hori da Kelseni bultzatu ziona horrelako sistema bat Europara ekartzeko; eta legeen konstituzio kontrakotasun kontrola bideratzeko auzitegi berezitu bat sortzeko ideia ere ezarri zuen (Konstituzio Auzitegia). Kelsenen ideia arrakasta handia izan zuen eta Austro hungariar inperioa desagitean Austriak eskatu zion Austriako konstituzioaren zirriborroa egitea. Kelsenek proposatutakoaren oinarrian bazegoen ideia bat; Europan sistema demokratikoa suntsitua izan zela behin eta berriro legegileak egin zuelako nahi zuen guztia. Europan oso berandu bideratu zen konstituzio kontrakotasun kontrola (I.mundu gerra eta gero). Txarrena ez dena hautatzea da, hau da, epaileen kontrola legegilearen kontrolaren ordez hautatzea.

→ Konstituzioaren lege edo arau-izaeraren (“arautasuna”-ren) beharra ezinbestekoa

- H. Kelsen eta Austriako 1920ko Konstituzioa
 - Konstituzioaren “arautasuna” edo Konstituzio “arauemailea”
 - Konstituzioaren zurruntasuna
 - Konstituzio Auzitegiaren eratzea eta Konstituziotasun kontrola

- Espainiako II. Errepublikako 1931ko Konstituzioa
 - Ereduaren hedatzea Europan zehar II. Munduko gerraren osteko Konstituzioetan.

- 1978ko Espainiako Konstituzioa arau goren gisa

- Espainiako Konstituzioaren “arautasuna” edo “lege izaera”: konstituziogilearen zalantzarik eza.
- Konstituzioaren lege-eraginkortasuna
 - 9.1 artikulua: “Hiritarrak eta herri aginteak Konstituzioaren eta gainerako lege antolamenduaren mende daude”
- Konstituzioaren indargabetze-eraginkortasuna: Xedapen indargabetzailea:
 - Lehen zatian: Frankismoaren garaiko Funtsezko Legeak indargabetzen dira
 - Bigarren zatian: Foruak ezeztatu zituzten Legeak indargabetzen dira (1839ko urriaren 25ekoa eta 1876k uztailearen 21ekoa)
 - Hirugarren zatian: “Halaber, Konstituzioan zehaztutakoa-ren aurkako arauak oro indarge gelditzen dira”
- Konstituzioa, epaileek eta auzitegiek betetzen duten kontrol-jardueraren neurria da
- Ez dago berme juridikorik horretarako kontrol neurri egokiak ezartzen ez badira.
- Gaur egun Espainiar Konstituzioaren kasuan esan dezakegu horren nagusitasun juridikoa bermatuta dagoela nola horretarako kontrol prozedura egokiak daudelako.

8.3. KONSTITUZIOAREN EDUKIA. KONSTITUZIO ARAU MOTAK.

- Lege-izaera duen Konstituzioaren betekizun oinarritzkoena

→ Iturburuen sorrera arautzea

- Sortzeari buruzko arauen zehaztea: erakunde bakoitzari eskumenak egozten dizkioten arauak, erakundeen sorrera eta jarduna arautzen dutenak, prozedurari buruzkoak, konstituzioaren eraberritzea arautzen dutenak.
- Materiari dagokion edukia duten arauak → herri aginteek egin behar dutenaren edukia zehazten duten arauak, Estatu Sozialaren Konstituzioen ezaugarria
- Gaur egun gauzak asko konplikatu dira eta konstituzioan datoz zuzenbidearen iturburu inportanteenen itxuraketa. Zuzenbidearen iturburuak itxuratzen eta arautzen ditu.

Hor lehia bat dago beti konstituzioaren eraberritzeko aukeraren eta konstituzioaren interpretaketaren artean eta bi bide horretatik mugitzen da interpretazioaren eraberritzea edota konstituzioak esaten duenaren interpretazioa gure garaira ekarriz.

- Konstituzioak lotura politiko eta ideologikoa ere du.
- Testu zahar bat epaileek egiten duten interpretazioaren bidez eraberritzen da.

- Konstituzioaren printzipioak edo oinarriak

- Arauak dira, baina egitura berezia dutenak.
- Ez dute gai bat zuzenean arautzen, baina horri buruzko irizpide orokorrak ezartzen dituzte.
→ erakundeek garatu behar dituztenak, bereziki, legegilearen betekizuna
- Arauak sortzeko eginkizunean eragina dute. Erakundeen jardueraren muga dira.
- Antolamenduaren barneko koherentzia bermatzea dute xede.
- Konstituzio-printzipioen eta Zuzenbidearen printzipio nagusien artean bereiztea

- Xedeak zehazten dituzten arauak edo egitamu-arauak

- Konstituzioak lege bereziak dira, oinarri politikoak dituztelako eta ikuspegi juridiko batetik ere bereziak dira nola neurri handi batean oso zabalak eta zehaztugabeak diren arauak biltzen dituztelako (printzipioak, oinarriak, helburuak...); bereziki interpretazioa eskatzen dute aplikatuak izateko eta hain zabalak eta zehaztugabeak diren neurriak interpretatzaileari eremu zabalari husten diote, eremu politikoarekin lotuta hauek dira konstituzioak bereizten dituzten arauak.
- Printzipioek ezaugarria zehazten duten bitartean, egitamu-arauek xedea adierazten dute.
- Erakundeen jardunaren muga dira, baina, horrez gain, erakundeen eginkizunak zehazten dituzte, horien xedea finkatuz
- Antolamenduaren politika- eta gizarte-xedeak finkatzen dituzte
→ Erakundeen eginbidea zehazten dute.
- Egitamu-arauek gaia edo materia ez dute zuzenean arautzen, zeharka bakarrik. Gaia edo materia bati dagokion eginkizun publikoa arautzen dute, lortu beharreko xedeak finkatuz eta, batzuetan, baita horretarako erabili behar diren baliabideak ere.
- Xedeak ezartzen dituzten arauen eraginaren arazoa: Herri aginteak lotzen dituzte.
→ arazoa: legegilearen jarduerarik ezak dituen ondorioak.
- Egitamu-arauen lege-ezaugarriak: E. K. 53.3 art.

- Konstituzioaren balio nagusiak

- Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa (Espainiar Konstituzioaren 1.artikulua).
- Zuzenbideko sorreraren, interpretazioaren eta ezartze-aren mugarri oinarritzkoak
- Horien bidez zehazten dira lege-antolamenduak bere egin behar dituen oinarritzko zedarriak
→ antolamenduak, sistema gisa dituen mugarri oinarritzkoak.
- Printzipioak baino xehetasun gutxiagokoak dira balioak.
- Printzipioak dira balioak gauzatzeko baliabide oinarritzkoa
- Balio nagusiek lege izaera dute, baina Konstituzioaren eta iturburu sistemaren bidez hedatzen, bilakatzen eta gauzatzen dira, ez antolamenduaren kontra.

8.4. AGINTE KONSTITUZIOGILEA ETA KONSTITUZIOAREN ERABERRITZEA

- Konstituzioaren eraberritzea eta Konstituzioaren zurruntasuna

- Konstituzioaren eta ohiko legeen arteko bereizkuntza eta aginte konstituziogilearen berezitasuna
- **Aginte konstituziogilea** → Aginte ohiz kanpokoak, aginte eratzaillea. Guztiz aginte berezia da. Sistema guztietan salbu Erresuma Batua eta Zelanda Berria non ez duten konstituzio kodifikaturik, haientzako sistemaren bizkarrezurra parlamentuaren demokrazia da (parlamentuaren boterea ez du inolako mugarik). Hain zuzen ere ezartzen dira prozedura hauek konstituzioak aldatzeko nola sistema guztietan konstituzioa sistemaren arauak ezartzen dituelako eta hauek ondo bermatuak izan behar dira eta orduan bereizi behar dira joko politikoaren arauak ezartzen duen legea eta beste lege guztiak eta horregatik egonkortasun berezi bat eman behar zaie. Sistema guztietan halako erabakia hartua izan bada onartu beharra dugu. Botere konstituziogileak nahi duena ezarri nahi du beti ere oinarritzko eskubideak ondo bermatuz eta botereen banaketa ondo bermatuz. Joko politikoaren arauak nahi duen moduan ezarri dezake. Botere hori agortzen den boterea da, konstituzioa sortzean agortzen da; parlamentuaren boterea aldiz agortezina da eta konstituzioa eraberritu ahal duen boterea. Botere konstituziogileak erabat modu librean erabaki dezake nola egin konstituzioa eta zer sartu eta zer ez sartu konstituzioan, zein arau eta zein prozedurekin. Konstituzioa legalki konstituzioaren arabera aldatu behar denez konstituzioak ezartzen duenaren arabera aldatu behar dago, konstituzioak horretarako ezartzen dituen prozeduren arabera. Botere konstituziogileak mugak ezar diezazkio konstituzioa eraberritzeko prozedurei; adibidez Alemaniako konstituzioak debekatzen du edozein erreforma Alemaniako egitura federalaren aurka doanean.

- **Aginte ohikoak** → Aginte eratuak, aginte mugatuak, aginte mendekoak: aginte konstituziogilearen borondatearen arabera mugatuak direnak.
- Botere ezarriak edo eratuak mugatuak daude konstituzioak esaten duenarenaren aldetik; horregatik dira zurrinak konstituzioak eta horregatik konstituzioa sortzean botere konstituziogilea bukatzen da eta hortik aurrera botere guztiak eratuak dira iraultza edo krisi politikoetan ezik non berriz pizten da botere konstituziogilea.
- Legegile ohikoak ukatua du Konstituzioaren eraberritzea edo aldakuntza egin ahal izatea → legegile berezia behar da, Konstituzioa eraberritu ahal izateko ahalmena duena
- Legegile arruntak ezin du konstituzioa eraberritu edota zuzendu nola horretarako gehiago bereziak eta prozedura korapilatsua eta zaila eskatzen dutelako.
- Espainiako konstituzioan bi prozedura daude konstituzioa eraberritzeko edota aldatzeko.
- Aginte konstituziogilearekin iturburuen oinarriko printzipioa hausten da: iturburuak sortzeko ahalmena agorrezina da, baina Konstituzioa sortzeko ahalmena Konstituzioa sortzearen betekizunean agortzen da.
- Konstituzioa eraberritzeko ahalmena duen agintea ez da aginte konstituziogilea → ez da aginte mugagabea, aginte mugatua baizik, Konstituzioaren mende baitago
→ Aginte konstituziogileak ez du bere burua mugatzen, baizik eta bere mende kokatzen den aginte bati ezartzen dizkio mugak, Konstituzio-aldakuntzarako aginteari.
- Zuzenbidearen oinarrian botere politikoa dago.

- Konstituzioaren eraberritzerako mugak izatearen balioa eta horien eragin politikoa → lege-zilegitasuna eta politika-zilegitasuna

- Konstituzioaren eraberritzearen izaera bikoitza: aginte eratuak, baina horren emaitza Konstituzioaren zatia bihurtzen da.

- Konstituzioaren eraberritzearen betekizunak, bi alde ditu:

- Konstituzioaren gorentasuna bermatzea
- Konstituzioa egoera berriei egokitzea ahalbideratzea

- Eraberritzearen betekizunaren alde bien arteko oreka beharrezkoa da.

- Esan ohi da ez dela oso zilegia konstituzioa hainbat eta hainbat alditan eraberritzen ibiltzea; nola konstituzioa egokitua izan ohi da interpretazioaren bidez.

- Konstituzioa egokitzearen beharra eta Konstituzioaren interpretazioa: Auzitegien betekizuna

- Epailen betekizuna kontinenteko eremuan eta *common law* eremuan.
- Epailen betekizuna gaur egungo antolamenduetan.

- Epailen betekizuna eta Konstituzio bakoitzaren ezaugarriak (xehea ala xehetasunik gabekoa edo xedapen orokorrekoa; aspaldidanik indarrean dagoena edo duela gutxi sortua).
- Estatu Batuetako adibidea: “1937ko Konstituzio Iraultza” eta Auzitegi Gorenaren *commerce clause*-aren interpretazioaren aldaketa
- Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia eta Erkidego-Zuzenbidearen ezaugarrien “sorkuntza”
- Europako herrialdeetan zehar Konstituzio Auzitegiek hartu duten betekizun erabakigarria
- Konstituzioa zurruna izan arren oso zurruna ez izatea hau da, aldaezin ez bilakatzea.

- Konstituzio eraberritzearen eta interpretazioaren arteko oreka. Baliabide bakoitzaren betekizuna

- Espainiako Konstituzioaren aldakuntzarako prozedurak

Espainiar estatuan konstituzioa aldatzeko edota eraberritzeko zailtasun hain handiak krisialdira arte eman dira bi alderdi nagusien (PP eta PSOE) jarreragatik. Baina gaur egun dagoen zatiketa politikoarekin zailagoa da konstituzioa eraberritzea edota aldatzea PP-k duen jarreragatik nola beti esaten du konstituzioa guztiz ondo dagoela eta ez duela inolako berrikuspenaren beharrik.

- **Prozedura ohikoa edo arrunta (Espainiar Konstituzioaren 167.artikulua)**
 - 3/5eko gehiengoa Ganbara bakoitzean.
 - Desadostasunik badago: Bitariko Batzorde parekidea.
 - Adostasunik ez badago: Senatuko erabateko gehiengoa eta Kongresuko 2/3eko gehiengoa.
 - Erreferenduma: edozein Ganbarako hamarren batek hala eskatzen badu.
- **Prozedura zaildua edo gogortua (Espainiar Konstituzioaren 168.artikulua)**
 - Prozedura honen babespeko gaiak: Konstituzio osoaren eraberritzea; Atariko Titulua; I. Tituluaren Bigarren Kapituluaren Lehen Atala (Oinarrizko eskubideak); II. Titulua (Koroa).
 - Ganbara bakoitzeko 2/3eko gehiengoa eta Ganbaren ixtea.
 - Hauteskunde berriak eta Ganbara berriek ekimena berrestea.
 - Testua Ganbara bakoitzeko 2/3eko gehiengoaz onestea.
 - Amaitzeko erreferenduma egitearen beharra dago.

- Konstituzioaren eraberritzea egin ezin daiteke egoera batzuetan (Espainiar konstituzioaren 169.artikulua): gerra garaian eta salbuespen egoeretan (hain zuen ere, Espainiar Konstituzioaren 116.artikulan zehazten diren egoeretan)